



Kanalak



Mugikorra erabiltzera ohituta dagoen jendeari zuzenduta dagoenez produktua, nagusiki sare sozialen bidez zuzenduko gara gure bezeroengana.


Instagram, Snapchat, Tiktok, Twitter eta Facebook bezalako aplikazioetan kontua izango dugu eta bertan aplikazioari loturiko edukia igoko dugu.

Gaur egun, jendearengan eragina duten pertsona ugari daude sare sozialetan, beraz, haietako batzuekin kontaktuan jarri eta gure aplikazioa iragartzeko ordainduko diegu. Haiekin kontaktuan jarri aurretik, beraien edukia zer publikok ikusten duen aztertu beharko dugu, gure proiektuarentzat interesgarria den publikoa den jakin ahal izateko. Profil mota ezberdinekin lan egitea da helburua, adin edo bizimodu mota ezberdinetako jendearengana iristeko asmoz.

Hori guztiaz gain, iragarki ezberdinak egingo ditugu. Batzuk sare sozial ezberdinetan ezarriko ditugu, hots, lehenago aipatutako Instagram, Snapchat, Tiktok... edo gure aplikazioaren antzeko aplikazioekin ere kolaboratuko dugu bertan iragarkiak jarritz.



Kanalak



Enpresa aurrerago hedatzean eta ordaintzeko aukera dugunean, telebistan ere iragarkiak ezartzea da gure helburua.

Etorkizuneko bezeroek aplikazioa jeitsi aurretik zalantzarik balute, gure sare sozialen edo gmailaren bitartez mezu bat bidaltzeko aukera izango lukete, bertan informazioa eskuratzeko, baita zertan datzan ulertzeko ere.

Ondorengoa, instagrameko kontua nolakoa izango litzaken ikusi ahal izateko sortua izan da:

[HOST FOODen instagrama ikusteko. sakatu hemen.](#)

